



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko martxoaren 12a

17 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Ebazpena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzaordearen jardura bultza dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Ebazpena, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren landaketa proposa dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7.or.).

—Mozioa, Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kideen espetxeratzea salatzen duena. Atzera bidalitako mozioa (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Larraga-Lerin errepidea egokitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Lurzoruaren hirigintza aprobetxamendua dela eta udalei eman beharrekoa ehuneko 5 murrizteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—“Lorzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—“Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- “Alde historikoak konpondu eta errekueratzea finantzatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- “Lurzoru urbanizagarri programatua” kalifikazioa kentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langilendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Eraikinak konpontzeko obrak kargaz arintzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko martxoaren 6an eginiko Osoko Bilkuran Foru Lege hau onetsi zuen: Uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duen Foru Legea. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betetzeko asmoz, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

Foru Lege proiektuaren lehenbiziko arrazoia da uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko 76. artikuluan aipatzen diren zerbitzu administratiboengatik tasak eguneratzeko beharra, hamar urteotan ez baitira aldatu.

Bigarren aldetik, aldatu egiten dira Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren tasak errepidean barnako garraioen antolamendurako, zerga-kontzeptuak egokituz, azken urteotan jarduera honen sektoreak izan duen bilakaerarenga-

tik eta gaur egun ematen diren zerbitzuen antolaketara eta egitura bestelakoak direlako.

Azkenik, eguneratu egiten dira ehizan eta arrantzan aritzeagatik ezarritako tarifak, kuota mota desberdinak bateratzearekin sortu den egoera berriari egokitzeko eta legezko babesa emateko Ehiza eta Arrantzari buruzko Batzorde Aholku-emaileekin hitzartutakoari, batzorde horiek behin eta berriz eskatu baitute prezio bakar bat finkatzea barrutietan aritzeko baimenetarako.

Artikulu bakarra. Uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zuena, aldatu egin da hemen aipatzen den bezala:

Bat. 76. artikulua testu berria.

“76. artikulua.- Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa honen arabera:

	Pezetatan
1. Ziurtagiriak luzatzeagatik (ziurtagiri bakoitzeko)	800
2. Agiriak konpultsatzeagatik (kopia bakoitzeko)	400
3. Erregistro ofizialetan inskribatzeagatik (inskrribapen bak.)	400
4. Ahalordeak eta legitimazioko egiaztagiriak askiesteagatik (agiri bakoitzeko)	1.000*

Bi. X. tituluko I. kapitulua, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren tasak. Testu berria.

“I. KAPITULUA

Garraio-lanetan zerbitzu administratiboak emateagatik tasa

125. artikulua. Zergagaia.

Tasaren zerga da garraio-lanetan zerbitzu administratiboak ematea, Foru Dekretu Legegile honetako 128. artikulua aipatzen duen bezala.

126. artikulua. Sujetu pasiboak.

Tasen sujetu pasiboak dira zerga eratzten duten zerbitzuak ematea eskatzen duten edo zerbitzuek ukitzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

127. artikulua. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerbitzua ematen den unean. Dena dela esijituko da zerbitzua eskatzen denean.

128. artikulua. Tarifak.

Tasa esijituko da honako tarifa hauen arabera:

1.- Barne garraio publiko aldiorokorako eta pribatu osagarriko baimenak eman, birgaitu, luzatu, ikus-onetsi edo aldatzea: 3.000 pezeta ibilgailu bakoitzeko.

2.- Erabilera bereziko bidaiarien garraio publiko erregularrerako baimenak eman edo berritzea: 3.000 pezeta baimen bakoitzeko.

3.- Gidariarekin nahiz gidaririk gabe ibilgailuak alokatzeko baimenak eman, birgaitu, luzatu, ikus-onetsi edo aldatzea:

3.1.- Ibilgailuak gidariarekin alokatzea: 3.000 pezeta ibilgailu bakoitzeko.

3.2.- Ibilgailuak gidaririk gabe alokatzea: 10.000 pezeta sujetu pasibo bakoitzeko.

4.- Garraio-agentziak, trantsitarioak, biltegi-dunbanatzaileak, zentrala nahiz sukurtsala izan, paratze baimenak eman, berri edo aldatzea: 6.000 pezeta sujetu pasibo bakoitzeko.

5.- Zirkulazio Kodeko 220.etik 222.era bitarteko artikuluetan ezarritako zirkulaziorako baimen bereziak ematea:

5.1.- Baimenatarako tarifak:

– Hilabetean 2 bidaia egiteko baimena: 2.500 pezeta.

– 3 hilabetetan 5 bidaia egiteko baimena: 7.500 pezeta.

– 6 hilabetetan 20 bidaia egiteko baimena: 12.000 pezeta.

– Urtebetean nahi adina bidaia egiteko baimena, ibilgailu bakar batentzat: 20.000 pezeta.

– Urtebetean nahi adina bidaia egiteko baimena, ibilgailu kopurua mugatu gabe: 50.000 pezeta sujetu pasibo bakoitzeko.

5.2.- Baimen berezi hauen jatorrizkoaren kopiak luzatzeagatik tasa, ibilgailu bakoitzeko, 1.500 pezetakoa da.

5.3.- Nekazaritzako eta herrilaretako ibilgailuak zirkulatzeko baimen bereziak emanen dira, 5.1 zenbakian finkatutako epeetarako, bidaia kopurua mugatu gabe.

6.- Bestelako tasak:

6.1.- Garraioko jarduera osagarriatarako eta garraiolari izateko lanbide-gaitasuneko titulua eskuratzeko azterketan aurkezteagatik eskubideak: 1.000 pezeta.

6.2.- Garraioko jarduera osagarriatarako eta garraiolari izateko lanbide-gaitasuneko titulua luzatzeagatik: 3.000 pezeta.

6.3.- Derrigorrezko liburu edo agiriak legeztatu, diligitziatu edo zigilatzeagatik: 1.000 pezeta.

6.4.- Baimenen ale bikoiztuak luzatzeagatik: 1.500 pezeta.

6.5.- Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen direnak ez bezalako baimenen jatorrizkoaren kopiak luzatzeagatik: 1.000 pezeta kopia bakoitzeko.

6.6.- Garraiolarien eta Garraioaren Jarduera Osagarri eta Lagungarrien Enpresen Erregistro Orokorrean ageri diren datuekin zerikusia duten txosten idatziak luzatzeagatik:

6.6.1.- Pertsona, baimen, ibilgailu edo enpresa jakin bati buruzko datuei dagokienez: 3.000 pezeta.

6.6.2.- Datu orokorrei dagokienez: 25.000 pezeta."

Hiru. 167. artikuluko 3. tarifaren eta 171. artikularen testu berria.

167. artikulua.

"3. tarifa. Ehiza barrutietako matrikula.

Ehiza barrutietako matrikulen tasak ateratzeko egingen da ehiza barrutiaren ehiza-errentaren 100eko 15ari dagokion zenbatekoa, hori honela ebaluatuko delarik:

a) Batez-besteko errentarako, azalera unitate bakoitzeko ehiza-aleen (E.A.) arabera, ehiza barrutien sailkapena honela egingen da:

Ehiza larria:

I. taldea: 60 E.A. 100 hektarea bitarteko lurralde bakoitzeko.

II. taldea: 60 E.A. baino gehiago eta 120 E.A. bitarte 100 hektareako lurralde bakoitzeko.

III. taldea: 120 E.A. baino gehiago eta 180 E.A. bitarte 100 hektareako lurralde bakoitzeko.

IV. taldea: 180 E.A.tik goiti 100 hektareako lurralde bakoitzeko

Ehiza txikia:

I. taldea: 0,30 E.A. hektarea 1 bitarteko lurralde bakoitzeko.

II. taldea: 0,30 E.A. baino gehiago eta 0,80 E.A. bitarte hektarea bakoitzeko.

III. taldea: 0,80 E.A. baino gehiago eta 1,50 E.A. hektarea bakoitzeko.

IV. taldea: 1,50 E.A.tik goiti hektarea bakoitzeko.

Ehiza espezieen arteko baliokidetasuna aplikatuko da abenduaren 27ko 390/1993 Foru Dekretuko Lehenbiziko Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, haren bidez arautu baitziren ehizarekin zerikusia duten zenbait alderdi.

b) Ehiza-errentari ematen ahal zaizkion balioak, talde hauetako bakoitzeko azalera-unitate bakoitzeko, honako hauek dira:

Ehiza larria:

I. taldea: 90 pezeta hektarea bakoitzeko.

II. taldea: 140 pezeta hektarea bakoitzeko.

III. taldea: 190 pezeta hektarea bakoitzeko.

IV. taldea: 290 pezeta hektarea bakoitzeko.

Ehiza txikia:

I. taldea: 30 pezeta hektarea bakoitzeko.

II. taldea: 60 pezeta hektarea bakoitzeko.

III. taldea: 120 pezeta hektarea bakoitzeko.

IV. taldea: 200 pezeta hektarea bakoitzeko

c) Ehiza larriko edo ehiza txikiko taldeen sailkapenean sartzen diren barrutietan, probetxamendu nagusiaren arabera, baina, beste aldetik, ehiza txikiko edo ehiza larriko (hurrenez hurren) espezieak ere probetxatzen badira, beren ehiza-errentari ematen ahal zaion balioa ateratzeko eginen da sailkapen taldean dagokien ehiza-errenta gehi 10 pezeta hektarea bakoitzeko.”

171. artikulua.

“171. artikulua. Tarifak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuna duten barrutietan ehiza eta arrantza baimenei dagozkien tasen zenbatekoa honako hau izanen da:

a) Tasa arrunta: 1.000 pezeta.

b) Tasa murriztua: 500 pezeta.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, tasa murriztua izan dezakete, beren gorabehera sozialak direla eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabakitzen dituen pertsona fisikoek.”

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean hartuko du indarra.

Nolanahi dela ere, Hiru idazatiaren edukia aplikatzen ahalko zaie 1997. eta ondoko urteetako denboraldietarako balioa duten arrantza baimenei.

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzaordearen jarduera bultzatzea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Ebazpena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzaordearen jarduera bultzatzea", 1997ko martxoaren 6an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzaordearen jarduera bultzatzea

Nafarroako Parlamentuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentua premiatzen du:

- 1.- SOZeko azpibatzaordearen jarduna bultzatzeko kudeaketa egokiei ekin diezaion.
- 2.- Justizi Ministerioarekin beharrezko kudeaketak egiteari eutsi diezaion, Gobernuak bere garaian landu zuen hitzarmena izenpetu dezan.
- 3.- Nafarroako eragotzleei SOZ postuak eskaini diezazkien Foru Komunitatean.
- 4.- Udaletan SOZ postuak eskaintzeko aukeren berri eman diezaien Nafarroako udalei.

Ebazpena, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren landaketa proposa dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Ebazpena, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren landaketa proposa dezan", 1997ko martxoaren 6an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren landaketa proposa dezan

Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari proposatu diezaion zainzuriaren laborantza sartzea Europako Batasunarekin batera finantzatzaren diren ingurugiro neurriei buruzko programa berezien baitan.

Mozioa, Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kideen espexeratzea salatzen duena

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko martxoaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kideen espexeratzea salatzen duen mozioa, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua, atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

Larraga-Lerin errepidea egokitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Larraga-Lerin errepidea egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 23ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Larraga-Lerin errepideari buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

Larraga-Lerin errepidea ezin okerrago zegoela ikusirik, Nafarroako Gobernuak behar ziren hobekuntzak egiteko konpromezua hartu zuen; zehatz esanda, “Larraga eta NA-6120 errepideko bidegurutzearen arteko NA-6110 errepidearen zabalkunde eta hobekuntza” proiektua. Alabaina, Parlamentari Talde hori kezkatuta dago proiektu horren faseak atzeratzen ari direlako, eta egoki iruditzen zaio proiektua 1997 urtean zehar bukatzea, ondoren beste errepide-zati konpondu ahal izateko.

Horregatik inetersgarritzat jotzen da jakitea:

1. Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak gogoeta horietaz?

Nafarroako Gobernuak aurtengo lehen sei hilekoaren bukaeran edukiko du Larragaren eta NA-6120 errepideko bidegurutzearen arteko NA-6110 errepidearen zabalkunde eta hobekuntza proiektua, bere idazketa bukatzen den unean, hain zuzen ere.

2. Esan dezake Nafarroako Gobernuak benetan nahia duela “Larraga eta NA-6120 errepideko bidegurutzearen arteko NA-6110 errepidearen zabalkunde eta hobekuntza” proiektua 1997 urtean bukatzeko?

Aurreikusten dena da 1997ko ekitaldian aipatu obra kontratatu eta hasi ahalko dela.

3. Errepide horretako gainerako tarteez, badu asmorik proiektuak prestatzeko?

Gainerako jarduketak Errepideen Foru Sareko obren plangintzaren menpe daude, egun prestatzen ari dena.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 17a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Reyes Cortaire Tirapu Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak Iruñeko 1-Eskualdea industrialdeko hondakin husketari buruz eginitako galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, Ramón Bultó Llevat Industri, Turismo eta Lan Kontseilari jaunak erantzun hau igortzen du:

Aurrekariak

Iruñeko 1-Eskualdea gaurregun urbanizazioaren burutzearen bigarren fasean. Iruñeko, Berribeitiko eta Orokoiengo udalak ukitzen dituen Udalezgandiko Eragineko Plan Sektorialaren bidez garatu da.

Industrialdeko funtsezko ardatza A bidea da. Hori bide bilbearen euskarria eta bide hori Gipuzkoako errepidearen eta Orkoiengo errepidearen arteko ingurubide bihurtu nahi da. Horretarako, udalezgandiko planaren asmoa da ingurubide bat eraikitzea, A bidearen eta Orokoiengo errepidearen artean, industrialdeko hegoko muturrean, lotu-netako. Ingurubide hori eraikitzeke dago eta Herri-lan Departamentuak, aurten, 1997an, burutu nahi du. Horrela trafikoarendako irekitzea eta industrialdeko urbanizazioaren bigarren fasea bukatzea bateratsu gertatuko dira.

Gaur egungo egoera:

Gaur egun gorabehera batzuk gertatu dira, husketa kontrolgabeak gertatzea erraztu dutenak.

* A bidea irtenbiderik gabe bukatzen da, lotzeko ingurubidea egin arte. Bidea harresi finkoaren bidez mugatu zen bere garaian, zimendatzeak barne, ingurubidea egin arte Orkoiengo errepidera iragatera eragozteko. Hala ere, ibilgailuak orubee-

tatik barna pasatzen ziren errepidera eta, batzuetan, harresia eraitsi egin zuten.

* A bideko muturraren eta izatekoa den ingurubidearen ondoan, kota barruti bat dago, bide sareko kuotak baino beherago dagoena, udalezgandiko planak berdegunetzat jotzen duena. Hori dela eta, lurzoruari buruzko legeriaren arabera, dago-kion udalari laga zaio, kasu honetan, Iruñeko Udalari. Alderdi horretan, behin eta berrero, husketa kontrolgabeak gertatu dira, materiala utzi eta ezkutatzeko ezpondaz eta kuota behereaz baliatzen direnak.

Konponbideak:

Egoera honen aurrean, Obra Zuzendari Teknikoen aldetik, SEPES eta Nafarroako Gobernua aldezturik jakinararen gainean zeudela, obra indusketen ondorioz sobratzen diren lurrak modu kontrolatuak erabili izan dira izatekoa den ingurubidearen ondoan dagoen berdegunea betetzeko, lurrraren maila berdindu eta bide sareko kuota lortu arte. Horrela husketen lehengo zioak saihesten dira eta orubea industrialdeko bereko obra indusketen ondoirozko landare-lurrez betetzen da oso-osorik. Halaber, obra indusketen ondoriozko lur horiek Eroskiko iparreko fatxadaren eta Lidleko mendebaldeko fatxadaren aurrean gelditzen den eta kiroletarako erabiltzen den lurzati orubeko kotak berdintzeko ere erabili dira. Izan ere, horretan ere husketa kontrolgabe asko izan dira, lurzati dagoen kota aldeagatik eta erabiltzen ez zelako. Lurzati hori, Iruñeko Udalari lagatzekoa da, Iruñeko Udaleko bereko teknikarien ulerkuntzaren arabera eta lagapena ez da formalki burutu, Sepes-ek haren biderapena eskatu badu ere.

Konponbide horien oinarria da, beraz, lur kotak lurrak modu kontrolatuan betez berdintzea eta erabilgarriak izan dira, Industri Departamentuko teknikariek aldian-aldian egiaztatu dutenez. Husketen zioak gutxiago dira orain, ezpondetan ezkutazterik ez dago eta.

Betetze kontrolatu horien batera, A bideko hegoko muturreko indusketa beren ondoriozko lurrak ere eraman ziren modu kontrolatuan, barretarako balio zezaten, orube horietan eta A bidetik Orkoiengo errepidean zuzenean sartzea eragozteko eta husketak saihesteko. Konponbide horrek lagundu du husketak kontrolatzen. Kendu egin dira paraitzen ari ziren lurretatik eta, aldi baterako, balio izan du ibilgailuei Orokoiengo errepidean

sartzea. Dena dela, aste batzuetatik hona ikusi da berriro ibilgailuak moldatu direla barreratako balio izateko lur-piletatik barna sartzeko. Berriro ere, husketak gertatu dira, errepide berean, barreratako balio duten lur-pilen ondoan.

Ondorioak:

Labur bildurik, eginiko galderari erantzunez, hondakin husketa kontrolgabeek aurka egiteko neurriak hartu izan dira. Konponbide horiekin alderdi ezkutatueta husketak egitea eragotzi da eta haiek gutxitu dira, baina orain egiten direnak nabarmenagoak dira, paisaian eragin handiagoa dutenak, kontrolagarriagoak eta konponerrazagoak.

Hala ere, saiaturiko konponbideak ez dira eta ez dira izanen aski eta ez dira burutzen ahalko

eremu publikoak Iruñeko Udalari lagatzea lortu arte. Afera hori, Udalak orubeez eta haien mantenimenduaz jabetu nahi izatearen ez besteren menpe dago. Udal hori obrak behin betikoz hartzeko aktak izenpetu ez dituen bakarra da, gainerrako udal ukituek izenpetu dituztenak, lurren lagapenerako alde aurreko urratsa direnak.

Hori dena dela eta, Nafarroako Gobernuak ekin dio haiek garbitzeari, horretarako zerbitzuak kontratatuz. Konponbide hori, beti ere, behin-behinekua izanen da, ez baitu saihestuko izan litekeen beste husketarik, aurreko lerroaldean aipatzen den arazoa konpondu arte.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak merkataritza-establezimenduren batera ailegatzeko norabidearen adierazleei buruz eginiko galderari dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Zergatik agertzen da establezimendu jakin bat eta ez beste batzuk?

Nafarroako Errepideen Defentsari buruzko Legeak, 9, 10, 11 eta 24 artikuluetan, debekatu egiten du jabari publikoko, menpeko eta errepideen afekzioko alderdietan. Alegia, bidez bi aldeetan, lur-berdinketaren kanpoko ertzetik paraleloak diren bi lerrok mugaturik, ez du publizitate

taterik egon behar, 100 metroko aldera autopista eta autobietan, 50 metrora Foru Komunitateko interes bereziko errepideetan eta 30 metrora gainerakoetan.

Nafarroako Gobernuak paratu ez dituen publizitate-kartel guztiak salatu egiten dira aurreko aginduak betetzen ez badituzte eta kentzeko agindua ematen da.

Hiriguneetan eskumena toki entitateei dagokie eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak haiek paratzean murriztu egiten denean errepideko ikusgarritasuna edo kokagune, itxura edo koloreagatik trafikoari kalte edo nahasmen-dua eragin diezaioketenean.

2.- Nafarroako Gobernuak erabilgarriak direla uste al du? Eta, mantendu nahi baditu, ez al zaio iruditzen ofizialak ez bezalako adierazleak erabili beharko lirakeela, kostua esandako enpresen lepora joanik?

Nafarroako Gobernuak informazio orokorreko kartel adierazleak ("industrialdea", kasu) besterik ez ditu paratzen eta, aurreko puntuan zehazturiko alderdietan ez du merkataritza-publizitate baimentzen.

Irizpide hori, salbuespen gisa, Volkswagen Nafarroa lantegiaren kasuan baizik ez da aldatzen, hain astunak diren ibilgailuen trafikoa, hark

nazioan, bai nazioartean sortzen duena, oso tin-
koa delako.

3.- Ea uste duen Nafarroako Gobernuak aipatu
enpresek kopuru sinboliko edo bestelakoren bat
ordaindu beharko luketela adierazlea han egotea-
gatik.

Aurreko kasua salbuespenezkoa denez, ez da
kontutan hartu diru-ekarpenik ordaintzea.

Hau jakinarazten dizut, Parlamentuko Errege-
lamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarri-
koa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Lurzoruaren hirigintza aprobetxamendua dela eta udalei eman beharre- koa ehuneko 5 murrizteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan
ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas
Foru Parlamentari jaunak lurzoruaren hirigintza
aprobetxamendua dela eta udalei eman beharre-
koa ehuneko 5 murrizteari buruz egindako galde-
raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafa-
rroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara
dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren
3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari
Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta
Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parla-
mento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko
José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari
jaunak lorzoru alorreko neurri liberalizatzaileei
buruzko 5/1996 Errege Dekretu-legean ezarritako
lurzoruaren hirigintza aprobetxamendua dela eta
udalei eman beharrekoa ehuneko 5 murrizteari
buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eska-
tu duenari dagokionez, erantzun hau igortzen
dizu:

1.- Egin al du Nafarroako Gobernuak gure
Komunitatean udalei lagatzen zaien lurzaruak
gutxiagotzeak edukiko duen eraginari buruzko
azterketa, kontrol edo jarraipenik? Zer ondorio
atera da? Neurri hau aplikatzearen ondorioz era-
gin onuragarririk lortu al da? Eta eragin txarrik?

Nafarroako Gobernuak ez du esleitu ez eta
burutu ere, oraingoz, neurri horrek gure Komunitatean
izan lezakeen eraginari buruz azterketa, kon-
trol edo jarraipenik.

2.- Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan
dezake, Nafarroan, Udal Ondareetako lurzoru-
azalaren gainean, udalek uzten dutena babes ofi-
ziaz edo bereziren bat daukaten etxebizitzak erai-
kitzeko?

Udal ondareetan izan duten eragina, zenbate-
koetan, lorzoruaren ondoriozko dirusarrerak ehu-
neko 33 gutxituko direla izanen da. Lorzoru horie-
tan babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen
dexente gertatzen direnez, gehienbat Iruñerrian,
bertan dagoen egoera larriagotu liteke, joera iraul-
tzeko ekintza publikorik garatzen ez bada.

3.- Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan
dezake, Nafarroan, lurzoru urbanizatuaren azken
salneurriaren gainean?

Oraindik goiz da eraginak sumatzeko. Beti ere,
orokorrean, Nafarroako etxebizitzaren salneurria,
Sociedad de Tasación, S.A. delakoak berriki argi-
taratu duen txostenaren arabera, merketu egin da
1996an, 1995ean 142,600 pta/m² eraiki izatetik
137.100 pta./m² iaz izatera (-3,8%).

4.- Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan
dezake, Nafarroan, etxebizitzaren azken salneu-
rrian?

Neurriaren benetako eragina denboraren den-
boraz sumatuko da. Dena dela, ohartaraztekoa
da, asko direla etxebizitzaren salneurriaren eragi-
leak. Hori dela eta zaila da bereiztea zer portzen-
taiatan esleki dakioken haietariko bakoitzari sal-
neurriaren aldaketa. Teoria hutsean, sustatzaileek
lagatzen duten hirigintza aprobetxamenduaren
portzentaiaren murrizketak azken salneurrian izan
dezake eragina, hura gutxituz.

Hala ere, egitez, sustatzailea, orokorrean, eskubide osoz, etekin handiena lortzen saiatzen da. Hori dela eta, etxebizitzak salneurri zehatz batean sal baditza (merkatuak edo arauteriak baimentzen duen altuenean, azken hori babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan), ez da pentsatzekoa salneurria merketuko dela. Besterik da merkatuak nolabait atzera egin dezala, eskaerarik ez dagoelako edo eskaintza handiegia dagoelako. Kasu horretan, neurri horrek posible egiten du salneurriak halamoduz apaltzea, nolabait, lehen lortzen ziren etekin kalterik gabe.

5.- Neurri honen eragina ikusirik, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gure Komunitatearentzako lege-aldaketa espezifikorik proposatzea, hiri-probetxamendutik datorren Udalentzako lurzoru-lagapena gutxiagotu dela aipatzen duena?

Jabetzari esleitzen ahal zaion aprobetxamendu portzentaia, oinarrizko izaerarekin, 5/1996 Errege Dekretu-Legean ezarri da. Horregatik, Nafarroan xedapen hori aldatzeko edozein legezko ekimen balego, oso litekeena da konstituzio-contrako errekurtsorik paratzea. Dena dela, badakigu, Sustapen Ministeriotik aztertzen ari direla

aukera Autonomi Elkarteek afera honi buruzko azkeneko arauetan jabetzak eskubide duen probetxamendu portzentaia finkatzeko.

6.- Zer neurri ezarriko du Nafarroako Gobernuak dirusarrerarik txikien duten familia horien beharrak asetzeko nahikoa portzentaia lurzoru publiko gordeko dela bermatzeko?

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bidez, 1997-2000 eperako Nafarroako Etxebizitza Plana prestatzen ari da. Planak, sarri Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaionak, horrek haren berri jakin eta eztabaida dezan, lurzoru alorreko jarduketa neurriak badauzka. Une horretantxe jakinaraziko da galderak atal honetan aipatzen dituen gorabeheraz, oraindik zehazteke baitaude.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarriko betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Lorzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lorzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lorzorua, etxebizitzak eta eraikinak sal-

tzea” 34820-7 aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderari dagokionez, erantzun hau igortzen dizut:

1.- 1996ko ekitaldian sarturiko diru-kopuruen sailkapena, jarduera bakoitzeko, helburua, zenbatekoa, ukituriko pertsona, enpresa edo entitateak, etab.

1996ko abenduaren 23a arte sarturiko zenbatekoa 295.539.083 pezetakoa da. Ekitaldia itxi ez bada ere, ez da dirusarrera esanguratsurik espero, 1996an ez baita lurzoru publikoa esleitzeko lehiaketarik egin. Horiek dirusarrerak eraginen zituzten aurreikusiak zeuden 1.000 milioi egin arte.

Dirusarrera horiek lurzoru salmentei, aurreko ekitaldietan esleitu zen lurzoru publikoak urbanizatzeko kuoten ordainketari eta partikular bati egindako salmentari dagozkie. Dirusarrera horiek honela sailkatzen dira:

– Nafarroako Gobernuarendako dirusarrerak, Viviendas de Navarra, S.A., VINSAREN ondoriozkoak:

- 205.789.757 pezeta Iruñeko Ipar Etxabakoizko V-11, V-12, V-8, V-9, IV-10, IV-A5.10, IV-8, IV-1.2.8, IV-9 eta IV-A2.9 lurzatiei dagozkie.

- 36.565.817 pezeta Iruñeko Arrotxapeko P1.a poligonoko 9-c lurzatiari dagozkio.

– Larcovi enpresaren ondoriozko dirusarrerak: 46.866.145 pezeta Iruñeko Arrotxapeko P-6E poligonoko 18-3 eta 18-s lurzatiei dagozkie. (Dirusa-

rrera egiatan 1995eko abenduaren 27an egin zen, kontableki 1996ari egotzi bazaio ere).

– Guerrico Goya jaunaren dirusarrerak: 6.317.364 pezeta, etxebizitzaren salmentari dagozkionak.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 27a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1996ko aurrekontuko “Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” 11881-6 aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda eta alokairuko etxebizitza publikoak erosteko interesa duten hiritarrek bete beharreko baldintzak.

- Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legea.

- Etxebizitza arloko jarduketa babesgarrien finantzaketa sistema eta ereduak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea.

- Etxebizitza jarduketak finantzatu eta laguntzeko maiatzaren 10eko 155/1993 Foru Dekretua.

14/1995 Foru Legeko 4 eta 5 artikuluen arabera, alokairuko etxebizitzaren sustapenak babes ofizialeko araubide orokorrean edo berezian egin eta horrela, hartzaileen urteroko famili dirusarreraren ponderatuek lanbide arteko gutxieneko lansariaren 5,5 eta 2,5 halako, hurrenez hurren, egin beharko dute. Hala ere, egokiago dirudi, sustatzailea Nafarroako Gobernu baldin bada, sustapena araubide bereziaren arabera edo horrekin parekatua izateak eta, baita, lanbide arteko gutxieneko lansariaren 1,7 edo 1,4 halako egiten duten famili dirusarreraren ponderatuak dituzten errenta hartzaileendako izateak nagusiki.

2.- Goranzko edo beheranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpoko ekarpen edo finantzaketaren bidez, kontusail horretan 1996ko aurrekontu-aldian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

Kontusailaren zenbatekoa ez da aldatu.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik.

Kontusaila ez da sailkatu eta ez dago 1995eko urteanitzeko gastu konprometiturik harturik.

4.- Aurreikusiriko helburua aurrekontualdi honetan lortzeko eginiko jarduketan zerrenda, ahalik eta zehatzena: zenbat etxebizitza dauden kontusail horren betetze-mailak ukiturik, zenbat etxebizitza dauden jarduketa bakoitzean eta non, araubideen eta ekimenen arabera sailkapena...

Gobernuak, 1996ko abenduaren 24an eginiko bilkuran, erabaki du Tuteran 7 eraikin edo orube erostea, 35 etxebizitza inguru zaharberri edo eraikitzeko, alokairuan uzteko asmoz. Galdearen xede den aurrekontu-kontusailari egotzi beharreko salneurria 35.720.411 pezetakoa da.

Ez dago aurreikusirik 1996an kontusail horri bestelako aurrekontu-egozketarik egitea. Dena dela, adierazi beharra dago Gobernuaren bilkura beran Tuterako San Francisco komentu zaharra dohainik lagatzea onartu zela, alokairuko 40 etxebizitza ingurutarako zaharberri eta egokitzeko.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Zaharberritzeko eta, hala bada, eraikitzeko obren betetzeak 700 milioiko gastua, 1997, 1998 eta 1999 urteetan artean banatzekoa, eraginen badu ere, gastua ez da formalki konprometitu, jarduketa espedienteak hasi berriak baitira bideratzen.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Alde historikoak konpondu eta errekuperatzea finantzatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alde historikoak konpondu eta errekuperatzea finantzatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1996ko aurrekontuko “Alde historikoak konpondu eta errekuperatzea finantzatzeko bulegoendako dirulaguntzak” 11840-9 aurrekontu-betetzeari buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, dekretu eta aginduen zerrenda.

Etxebizitzak zaharberritzeko udal eta eskualde bulegoak finantzatzeko laguntzei buruzko abenduaren 14ko 289/1988 Foru Dekretua

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak azaroaren 6an emaniko 142/1996 Foru Agindua, aurreko Foru Dekretua garatzen duena.

Alde historikoen errekuperazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalarekin eta, Tuterako eta Corellako alde historikoei dagokionez, Erriberako Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatearekin izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenetan xedatuaren menpe dago.

2.- Foru Agindu eta Ebazpenen bidez gauzaturiko gorako edo beherako aldaketak, eta baita aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere, 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar erabili den kopurua osatu arte.

Kontusail horren zenbatekoan ez da aldaketarik izan.

3.- 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopurua, eskurako kreditua dela edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua dela.

Kontusaila, egitez, honela sailka daiteke:

– Zaharberritze bulegoetako langileen gastuen dirulaguntza.

– Alde historikoetako planeamendu eta azterketa tresnak prestatzeko diharduten ekipoen kostuaren dirulaguntza.

Adierazi beharra dago 1995eko ekitaldian konprometituriko krediturik ez zegoela.

4.- Aurreikusitako helburua erdiesteko, oraingo aurrekontu ekitaldian burutu diren jarduketan zerrenda ahalik eta zehatzena (biztanleria, dirulaguntzaren zenbatekoa, norakoa, eskaria, ematea eta ordainketa noiz diren...).

Galderak eskatzen duen zerrenda zehatzari dagokionez, esan behar da orain arte ez direla aurkeztu edo egiaztatu ordainketa guztiak egiteko behar diren gastu justifikazio guztiak. Hala ere, posible da gutxi gora behera kopuru bat aurreratzeari, ohararazpen batzuk eginez, gastu banaketa zehazteko asmoz.

Zaharberritze bulegoetako langile laguntzaileen gastuetarako, gehienez ere lansaria laguntzen da diruz, hala bada, gizarte segurantzaren eta antzintasan saria barne eta, arkitektoen eta arkitekto teknikoaren kasuan, bateraezintasun osagarria barne. Dirulaguntzaren xede diren langileen gastuak hauek dira:

Iruñeko bulegoa: arkitekto 1, 2 arkitekto tekniko eta 2 administrari-laguntzaile.

Iruñerriko bulegoa: arkitekto 1, arkitekto tekniko 1 eta administrari-laguntzaile 1.

Tafallerriko bulegoa: arkitekto 1, arkitekto tekniko 1 eta administrari-laguntzaile 1.

Lizarrerriko bulegoa: arkitekto 1, arkitekto tekniko 1 eta administrari-laguntzaile 1.

Erriberako bulegoa: arkitekto 1, arkitekto tekniko 1 eta administrari-laguntzaile 1.

Mendebaldeko Eskualdeko bulegoa: arkitekto tekniko 1 eta administrari-laguntzaile 1, lanaldi osoz ez dihardutenak.

Zaharberritze bulegoei dagokien gastua 71.817.357 pezetakoa da: 20.020.118 Iruñekoari, 9.820.000 Iruñerrikoari, 11.706.386 Tafallerrikoari, 12.787.483 Lizarrerrikoari, 11.575.672 Erriberakoari eta 5.907.698 Mendebaldekoari.

Iruñeko Udalari dagokionez, alde historikoari loturiko lanengatik, gata 4.800.000 pezetakoa da.

Corellako alde historikoari dagokionez, gastua 3.770.000 pezetakoa da.

Tuterako alde historikoari dagokionez, gastua 7.540.000 pezetakoa da.

5.- Oraingo ekitaldian izapidatu diren espedienteetan 1997 eta 1998 ekitaldietarako hartu diren gastu-konpromezuak.

Erriberako Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatearekiko lankidetzaren hitzarmenean 1997rako 4.060.000 pezetako gastuak aipatzen ziren Corellarako eta 6.380.000 pezetakoak Tuterarako.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1996ko aurrekontuko “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” 93002-2 kontusailaren betetzeari buruz egindako galderari, idatzizko erantzuna eskatzen duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

- Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legea.

- Etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrien finantzaketa sistema eta ereduak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea.

- Etxebizitzen jarduketak finantzatu eta laguntzeko maiatzaren 10eko 155/1995 Foru Dekretua.

2.- Goranzko edo beheranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpoko ekarpen edo finantzaketaren bidez, kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

1996an ez da kontusail horren zenbatekoan aldaketarik izan.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik.

Ez dago sailkapenik 1995aren ondoriozko urteanitzeko gastu konpromezuengatik.

4.- Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatzeko egindako jarduketaren zerrenda, ahalik eta zeha-

tzena: zenbatekoa, eskura dauden azlaerak, etxebizitza kopura, ukituriko jendea...

- 23.319.165 pezeta, Iruñea-Arrotxapeko eta Noaingo zenbait lurzatiren ordaintzetarako.

- 80.183.721 pezeta, urbanizazio kuotak ordaintzeko, Iruñea-Sanduzelain 112 etxebizitza eraikitzeke lurzatiengatik, gero aipatuko diren 187ak barne.

- 393.371.205 pezeta, lurzoruaren erosketa eta urbanizazio gastuak ordaintzeko, Iruñea-Sanduzelain 159 etxebizitza eraikitzeke lurzatiengatik.

- *112.624.470 pezeta, lurzoruaren erosketa eta urbanizazio gastuak ordaintzeko, Iruñea-Sanduzelain 68 etxebizitza eraikitzeke lurzatiengatik.

- *47.729.164 pezeta, Nafarroako Gobernuak 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran erabakirik, Corellan eraikin eta orube bana erosteko. Alde historikoa zaharberritu egin nahi da. Horrek hirigintza planteamenduen garapenaren beharra eduki dezake. Hori dela eta ez da posible zehatz-mehatz ezartzea zenbait etxebizitza izan diren. Behin-behinean esan daiteke 30 bat izan direla, berriak eta zaharberrituak.

- 31.287.798 pezeta, Iruñea-Sanduzelaiko 27 etxebizitzatarako 2 lurzatiren urbanizazio gastuengatik.

- 93.386.081 pezeta, lurzorua eta eraikitzeke eskubideak erosteagatik (urbanizazio gastuen ordaintzetaz gain), Iruñea-Sanduzelaiko 187 etxebizitzatarako lurzatiengan.

- 329.039.593 pezeta, Noainen lurzorua erosteagatik, 190 etxebizitza eraikitzeke.

- 5.734.215 pezeta, Mendillorriko eta Noaingo urbanizazio gastuengatik.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Gastu batzuek 1997an badiraute ere, formalki hurrengo ekitaldietarako ez dago gastu konpromezurik.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 27a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren baremoa arautzen duen legeria aplikagarriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 23ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baremoei buruz eginiko galdeari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Bada gure Komunitatean aplikatzekoa den legeriarik, babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoen ezarpena arautzen duenik?

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baremoen betebeharra etxebizitza arloko jarduketara babesarriak finantzatzeko sistema eta motei buruzko abenduaren 21eko 14/1992 Foru Lege arau-emailean agertzen da.

Lege horrek, 5 artikulua, erregimen berezian dauden babes ofizialeko etxebizitzetarako espreski ezartzen du: "Erosle edo esleipen-hartzaileen hautapen prozedura deialdi publikoaren bidez eta baremoa aplikatu ondoren egitea. Nafarroako Gobernuak onetsiko duen baremo horretan, etxebizitza eskatzen dutenen famili egoera eta baldintza sozioekonomikoak neurtuko dituen balorazioa egingen da".

Lege berak, zazpigarren xedapen gehigarrian, Nafarroako Gobernuaren lurzoru publikoa esleitzeko lehiaketek ari delarik, proposamenak baloratzeko irizpide gisa "sustapenaren ezaugarri sozioekonomikoak" ezartzen ditu. Hori dela eta, lurzoru mota horretan, egitez, esleipen-hartzaileak hautatu eta baremo bat aplikatzea nahitaezkoa da, baita erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko ere.

2.- Erantzuna ezezkoa bada, uste du Nafarroako Gobernuak beharrezkoa dela berezko legeria ezartzea, babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoetan ezarritako balorazio irizpideetan emaniko puntuak parekatzea posible egiteko?

Lehenengo galderaren erantzuna berez ezezkoa ez bada ere, interesgarritzat jotzen da gutxi gora-beherako baremo bat ezartzea, sustatzaileek eta udalek herrian herriko inguruabarren arabera alda dezaketena. Izan ere, herri batzuetan gazteendako etxebizitza izan daiteke premiazkoa, beste batzuetan, hirugarren adineko pertsonendakoa, beste batzuetan birkokapenak, hirigintza zioengatik, etab.

3.- Sustatzaile batek eskaturik, Nafarroako Gobernuak etxebizitza multzo bat babes ofizialekoen sailkapenean sartzen duenean, nolabait, ezarritako irizpideak eta haiek lehen aipaturiko baremoetan baloratzeko kontutan hartzen dira? Inoiz egiaztatzen da ezarritako baremoak aplikatzen eta betetzen diren?

Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, ez da nahitaezkoa baremoak eta deialdi publikoa egitea. Erregimen bereziko babes ofizialeko sustapenen kasuan, maiatzaren 10eko 155/1993 Foru Dekretuak, bere 25 artikuluan ezartzen du, erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenentarako, espedientearen behin-behineko kalifikazioa ematerakoan, onartzen dela baremoa eta, kontratuak bisatu aitzin, hautaprobak eta baremoaren aplikazioa behin-behineko kalifikazioa lortzeko aurkezturiko agirietara egokitu direla frogatuko dela (aipatzen den jardunbideari jarraikiz).

4.- Baremo horiek indarra duten etxebizitzarako laguntza programen litzekoen onuradunenak neurri handi batean gehitzeko balio badute, non datza muga lege ezarritako hatsapenak, lehen aipatu ditugunak, betetzerakoan?

Deialdi publikoaren eta baremoaren bidezko hautaprobaren aplikazioa erregimen bereziko sustapenetan bakarrik dela nahitaezkoa berriz esanik, ulertu behar da jabetza edo alokairua lortzeko muga etxebizitza ohiko helbide iraunkortako erabiltzea dela eta, erregimen bereziaren kasuan, esleipen-hartzailearen famili dirusarrerara ponderatuek lanbidearteko gutxieneko lansariaren 2,5 halako baino gutxiago egitea eta, gainera, susta-

pena salerosketaren bidezkoa bada, eskuratzen duten etxebizitzaren salneurriaren zazpirena baino gehiago egitea.

5.- Zer egoera edo jarduketaren aurrean alda dezake Nafarroako Gobernuak udal entitate batek ezarritako baremoa, kasuan kasuko Departamentuaren bidez?

Nafarroako Gobernuak aldatu egin dezake udal entitate batek erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko ezarritako baremoa, akatsak edo okerrak zuzentzeko eskatuz, babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa eman aitzin. Eskaerari jaramonik egin ez balio, uko egin liezaioke kalifikazio horri.

6.- Zer egin beharko lukete hiritarrek babes ofizialeko etxebizitzaren erosleak hautatzeko baremoa aldatzeko?

Erregimen bereziko sustatzaile bateko legez kanpoko xedapenik ez daukan baremoa prestatu eta haren onespina lortzen badu, inguruabar batzuk (seme-alaba kopurua, lansariak, etxebizitzaren beharra, etab.) ponderatzeko zentzuzko nahi-bezalakotasun aldeaz balia baledi ere, ez dago ezarritako Nafarroako Gobernuaren aurreko berezko errekurtsio araubiderik, hiritarrek baremoan aldaketak sar ahal ditzaten. Kontutan hartu behar da horrelako zerbait gertatzen dela hiritarrek proiektuan edo ordainketa baldintzetan aldaketarik sartu nahi dutenean.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak telefonia mugikorraren instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariarena

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak telefonia mugikorreko instalazioei buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

Egokia iruditzen ote zaion, bere baliabidez edo beste hainbat departamenturen lankidetzaz, irizpideak ezartzea, lurzoru ez urbanizagarrian paratzen ari diren telefonia mugikorraren instalazioen

ikusizko eragina gutxiagotzeko, zerbitzua eta funtzionamendua kaltetu gabe eta, ahal den neurrian, dauden inguruan poliki txertatuz.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren artean elkarrizketei ekin zaie irizpide teknikoak ezartzeko, lurzoru ez urbanizagarriko telefonia mugikorreko instalazioen funtzionamendua eta zerbitzuak paisaiari zor zaion begirunearekin eta dauden inguruarekin bat etor ahal daitezten.

Irizpide horiek, finkatu eta gero, telefonia mugikorreko instalazioak sustatzen dituzten enpresei azalduko zaizkie, aurrera eraman ditzaten.

Horretarako, gogarazi behar da, instalazio horiek Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren administrazio baimenaren menpe egon izan direla, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 33. artikularekin eta ingurunean egin beharreko obren plan eta proiektuen ingurugiro eraginaren azterketei buruzko uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuarekin bat. Hala ere, haien edukian ez ziren paisaiarenganako eragina aztertzen, baizik eta beste batzuk, objektibagarriagoak direnak, basa faunari, haren

habitategi eta ingurunearen bestelako osagaiei buruz, Foru Lege horrek eskatu bezala.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoia betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariarena

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du telefonia mugikorraren instalazioei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

Egoki iruditzen ote zaio, bere baliabideez edo beste hainbat departamenturen lankidetzaz, irizpideak ezartzea, lurzoru ez urbanizagarrian para-

tzen ari diren telefonia mugikorraren instalazioen ikusizko eragina gutxiagotzeko, zerbitzua eta funtzionamendua kaltetu gabe eta, ahal den neurrian, dauden inguruan poliki txertatuz?

Lurzoru ez urbanizagarriko azpiegiturak eraikitzea, telefonia mugikorrari dagozkionak barne, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean arautu dira.

Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen du aipatu instalazioen ikusizko eragina eta ingurugiroari buruzkoa gutxiagotzeko irizpideak ezartzea. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak elkarrekin ezarriko dituzte irizpideok, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Jarraipideen baitan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

“Lurzoru urbanizagarri programatua” kalifikazioa kentzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzoru urbanizagarri programatua” kalifikazioa kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak lurzoru urbanizagarri programatuaren eta ez programatuaren arteko bereizketa, lurzoru alorreko neurri liberalizatzaileei buruzko 5/1996 Errege Dekretu-Gegean ezarrikoia, kentzeari buruz eginiko galdeari, idatzizko

erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

Eginiko galderak banan-banan erantzuten hasi aitzin, argitu beharra dago 5/1996 Errege Dekretu Gegean sarturiko neurri hori ez dela oinarrizkoa. Hori dela eta, ez da Autonomi Elkarte batzuetan zuzenean aplikatzekoa, hala nola, gurean, alor horretan berezko legeria baitauka, bi lurzoru urbanizagarri motak ezartzen dituen. Horregatik, hona hemen zure galderako ataletako erantzunak:

1.- Egin al du Nafarroako Gobernuak gure Komunitatean bi lurzoru urbanizagarrien arteko bereizketa kentzeak edukiko duen eraginari buruzko azterketa, kontrol edo jarraipenik? Zer ondorio atera da? Neurri hau aplikatzearen ondorioz atera da? Neurri hau aplikatzearen ondorioz eragin onuragarririk lortu al da? Eta eragin txarrik?

Nafarroako Gobernuak ez du galderak aipaturiko azterketa, jarraipen edo kontrola egin. Ez luke zentzurik izaneren, aurreko leerroaldeak esana kontutan harturik.

2.- Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan dezake, Nafarroan, gure biztanle-gune handiek eta biztanleria txikiagoko herri periferikoek duten lurzoru urbanizatu eskasiaren gainean?

3.- Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan dezake, Nafarroan, orain arte ez programatua bezala sailkatu den salneurriaren gainean? Eta etxebizitzaren azken salneurriaren gainean?

Begi bistakoa da, lehen esan denagatik, neurri hori ez dela eraginik izaten ari Nafarroan, gure Komunitatean ez baita aplikatzekoa.

4.- Neurri honen eragina ikusirik, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gure Komunitatearentzako lege-aldaketa espezifikorik proposatzea, lurzoru urbanizagarri ez programatu eta lurzoru urbanizagarri programatuaren arteko bereizketa kendu dela eta dena lurzoru urbanizagarritzat jotzen dela aipatzen duena?

Une hauetan ez dago horrelako neurririk aurreikusirik.

5.- Zer neurri ezarriko du Nafarroako Gobernuak neurri hauekin oso zabala den lurralde urbanizagarriaren betetze arrazoizkoa bermatzeko, eta alde oso periferikoetan eta oinarritzko azpiegituretatik zein hiriguneetatik oso urrun daudenetan jarduketak berehala egin daitezzen galarazteko?

Gobernuak ez du asmorik neurri horiek ezatzeko, arauteria ez baita Nafarroan aplikatzekoa.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak aisialdiko baratzei buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Nafarroako Gobernuak halako erregistro moduko bat nolabait ezatzeari egoki irizten dion, bertan aisialdiko baratza erosteko asmoa duten pertsonak bilduko lirakeelarik.

Ukaezina da gizarteak gero eta gehiago eskatzen dituela aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak eta, gehienbat, naturan eta herri xeheetan burutzen direlarik. Eskari horrek, seguruenik, badu zerikusirik naturarekiko ukipenaren etengabeko bilaketarekin.

Eskari horren parte bat populazioguneen inguruan sakabanaturik egoten da, aisialdi mota hori eta horrekin loturiko jarduerak betetzeko oinarritzotzat jotzen diren kaletar bizimoduko zerbitzu eta betebeharrak lehenetsunez herrietara eraman eta bertan gauzatzeko desioaren ondorioz. Aisialdiko baratzak baderitze ere, gehienetan egiten den jarduerak ez du zerikusirik baratzekin eta horiek lurzatiaren zati txiki bat hartzen dute.

Beti ere, eskari hori modu antolatuan bete behar da, lurraldean erabilerak ezartzeko aurreikusirik legezko baliabideak errespetatuz. Horregatik, bertan eskumenak dituzten bi administrazioen ekintza hitzartua beharrezkoa da: toki entitateena, kasuan kasuko hirigintzaren planeamenduaren bidez, eta Foru Administrazioarena, jarduera mota horri buruzko arauteriak prestatuz eta entitate haiei aholkuak emanez.

Aisialdiko baratzezaintzan jarduteko interesa duten pertsonak bil litzakeen erregistroa ezartzea-

ri dagokionez, adierazi behar da, hori eginen balitz, komenigarria izanen litzatekeela udaletan konpontzea. Izan ere, udalerrietako bizilagunak ez bestek jarduera horietan jardutea onartzea ezinbesteko eta komenigarria baita, bien arteko elkarbizitza eta garapen onerako.

2.- Nafarroako Gobernuak halako proiektuak jasotzeko gertu dagoen, eta, proiektu hauek legeak ezarritakoa betetzen badute, dagokion Departamentuaren bidez onartuko ote dituen.

Lehen esandakoarekin bat, ulertzen da udaletan hasi behar duela aipaturiko proiektuen biderapenak. Banan-banako edo lurzati gutxitako jarduketak badira, lurzoru ez urbanizagarrian jarduerak ezartzeko biderapenaren bidez (Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 42. artikulua); eta,

jende gehiago biltzen duten jarduketak badira, udal planteamenduaren edo planteamendu bereziaren bidez. Hori horrela, erantzunari hertsiki lotuz, Gobernuak prest dago horri buruz proiektuak aurkez daitezen, bere bulegoetan sartzen diren bestelako espedienteak aurkez daitezen bezain prest, hain zuzen ere. Izan ere, labur bildurik, lege horretara beharturik dago. Haien balorazio positibo edo negatiboa berezko kalitatearen eta udaletan alde aurretik egin beharreko biderapenaren emaitzaren arabera izanen da.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruzko galdera dela eta, zeinarentzat idatzizko erantzuna eskatzen baitzuen, ondorengo erantzun hau eman nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen CACECOri proposatzea bere instalazioen perimetroan zehar gehiago para dezan. Zuhaitzondo hauek dauden zuhaitz-lerroak gehiagotzea

ekarriko lukete, eta horrela eragina leuntzen duen landare-estalkia indartsuagotuko litzateke.

2. Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen CACECOri proposatzea hesi edo zuhaiska bat para dezan, Club Atlético Osasunak erabiltzen duenaren antzekoa.

3. Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen Club Atlético Osasunari proposatzea CACECO-rantz doan errepidearen ondoko aparkalekua aldatzen duenean ikusizko eragin txikiagoa duen koloreko materiala erabili dezan, eta beste aparkalekuan dauden bezalako edo antzeko zuhaitzak landa ditzan.

Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Zuzendari Nagusiak, maiatzaren 19ko 863/1994 Ebazpenaren bidez, Agropecuaria Navarra Sociedad Cooperativa-k bultzaturiko proiektuko obrak, Pentsu Fabrika eta bulego orokorrak egiteko, baimendu zituen, baita lehen fasean Urbanizazio Proiektuan aurreikusitako urbanizazio obrak ere. Biei hainbat ohar egin zitzaizkien eta 2. zein 3. faseko urbanizazio obrei baimena ukatu zitzaien.

Baimen hori emateko bidea eman zuten idazkiak ikusirik, ondoko hau esan daiteke:

a) Baimentzeko aurkeztu zen proiektuak biltzen zituen berdeguneak eta zuhaitziak garatu

beharreko jarduera eta funtzioei inguru aproposa emateko egokiak zirela uste izan zen eta egun ere hala uste da.

b) Pentsu fabrikaren ezaugarriek -40 metro baino garaiagoa den eraikina- saihestezina den ikusizko eragina eragiten dute. Proiektatu den eraikina solido erregular eta bakana da, garatu nahi den produktio-sistemaren baldintza espezifikoei guztiz egokia zaiena; aukeratu den estaldurak -tolesturiko altzairuzko txapaz prefabrikatutako panelak azkeneko pinturazko trataerarekin- galazten du trataturiko azalera hainbat kolore ezberdinetan zati daitezen eta kolore-zerrendak ager daitezen, eta uste dugu formula hau onargarria dela fatxadako azalera handiak tratatzeko. Hau honela baieztatu daiteke ezen, izaera orokorraz, aukeratutako kolorea dela eraikinaren bolumenak berez sortzen duen eragina areagotu dezakeen elementua; alabaina, ezin uka alor honetan subjektibitateak paper garrantzizkoa jokatzeko duela.

Hau guztia adierazi eta gero, ohartzeko gara Parlamentari andreak egiten dituen galderetan Gobernuak "egokitzat jotzen ote duen" esaten dela; hau da, iritzia eskatzen dela, eta, hortaz, subjektibitate-maila ezinbestez handia dela.

Erantzun liteke, hasiera batean, eta batez ere 1. eta 3. galderaren kasuan, baietz, Gobernuak egoki jotzen duela eta beraz, proposatzen ahal zaiola enpresa sustatzaileari eraginak ahalik eta txikien izateko neurririk handienak har ditzala. Alabaina, hain erantzun jenerikoa, tramitatzen diren espediente guztiei aplikagarri litzatekeena, arautua

dagoenaren barruan tramitatu behar diren espedienteak, bestalde, asmo onen aldarrikapena baidarik ez litzateke izango. Asmo on hauek zehaztea, baina, zaila izango litzateke, hau da, zaila litzateke zehaztea zenbat zuhaitzondo paratu beharko liratekeen edo eta zer bide jarraitu beharko liratekeen fabrikaren ikusizko eragina gutxiagotzen lagunduko lukeen "trataeraren bat" aurrera eramateko.

Bigarren galderari dagokionez, errepikatu behar da lehen esandakoa: proiektuak lorazaintza mailako proposamen bat egiten zuen, eta bere unean egoki iritzi zitaion. Beraz, horri buruz esan zitekeen guztia eman zen ebazpenean adierazi zen. Alde horretatik, ez litzateke egokia izango, ez eta loteslea ere, garai hauetan, administrazio baimena eman eta ia hiru urte beranduago, Gobernuak gomendatzen hastea itxiturak honelakoak edo bestelakoak izatea, aldameneko lursailtakoak bezalakoak, landare-hesi, zuhaiska edo antze-koekin egina, eta abar.

Azkenik, eta laugarren galderari dagokionez, esan behar da Departamentuan ez dela jaso Club Atlético Osasunak egin nahi omen dituen obrei buruzko inongo espedienterik.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamentuko 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 1a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruzko galdera dela eta, zeinarentzat idatzizko erantzuna eskatzen baitzuen, ondorengo erantzun hau eman nahi du:

Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen eskatzeko hurrengo proiektuetan kolore ez hain azkar

eta inguruan hobeki txertatzen direnak erabil daitezela, bai eta zuhaiskak eta zuhaitzak gehiago erabil daitezela bideko muturretan.

Basa Fauna eta bere habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 33. artikulua araber, eta uztailearen 19ko inguru naturalean egin beharreko obretako plan eta proiektuen ingurugiro-eraginen aztertzeari buruzko 229/1993 Foru Dekretuaren arabera, nekazaritza bideak egiteko administrazio baimena ematea Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokio.

Administrazio baimena emateko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak berariaz babesten dituen ingurugiro-balioak zaintzea aintzat hartzen da, batez ere fauna eta bere habitatak, hauen balioa objektibagarriagoa delako paisaiarena baino, eta berez hauek direlako Foru Legeak aintzat hartzen dituena.

Alabaina, komenigarria izan daiteke, galderan bertan aipatzen den bezala, Nafarroako Gobernuak, nekazarien interesak ordezkatzen dituzten erakundeekin batera, hurrengo nekazaritza bideak egiteko proiektuetan ikusizko eragina gutxiagotuko duten neurriak hartzea azter dezan. Eragin hau gutxiagotzeko, gainera, hain azkar ez diren koloreak erabili beharko lirateke, inguruan hobeki txertatzen direnak, eta zuhaiskak edo zuhaitzak landatu beharko lirateke, lerroan.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 23ko 71 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako kalteordainak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruzko galdera dela eta, zeinarentzat idatzizko erantzuna eskatzen baitzuen, ondorengo erantzun hau eman nahi du:

1. Obren kontratazioa egin duen Gobernuaren Departamentua.
2. Obren zehaztapen laburra.
3. Enpresa hartzailea.
4. Esleipen eguna.
5. Obrak burutzeko epea.
6. Obrak hasteko eguna.
7. Obrak bukatzeko eguna, hala bada.
8. Kontrata bakoitzeko burutzearen aurrekontua.
9. Itoizko obrak gelditzeak ukitutako zenbat langile hartu diren obra horretakoak.
10. Aipatu langileak zenbat denboraz kontratatu ziren.

1.etik 10.erako galderen erantzuna, prozedura negoziatuaren bidez Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak obrak kontratatzeari buruzkoak, Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako langileentzat beste lanpostu bat bilatzeko.

Galderak baino lehenagoko lerroaldeari dagokionez, esan behar da 6/1996 Foru Legeak obren

gelditzeak ukitutako enpresa eta langileei ordaindu beharreko kalteordainez diharduela, eta ez langile hauei beste lanpostu bat aurkitzeko prozedura negoziatuaren bidez kontratau beharreko obrez.

Apirilaren 15ean, Nafarroako Gobernuak Itoizko urtegiko obren sabotajearen ondorioz langabezian zeuden langileei beste lanpostu bat aurkitzeko Erabakia hartu zuen. Lanpostu hauek Nafarroako Gobernuak finantzatzen edo kudeatzen dituen obretan aurkituko lirateke; administrazio-kontratazioak aparteko premiaz egin behar zirela eta egoera berari apartekoa irizten zitzaiolarik, kontratazioari buruzko legeak aurreikusten dituzten premiazko arazoak zirela tarteko prozedura negoziatua erabiltzea erabaki zen, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egin gogo zituen zenbait obra ahalik eta eperik laburrenean egin ahal izateko.

Erabaki hori betez, Departamentu honek txosten zehaztua prestatu zuen, bertan Plan honen barruan sar zitezkeen obrak zerrenda batean bilzen zirelarik, berauek lau ataletan sailkatuz:

I. Departamentuak berak zuzenean egin beharreko obrak.

II. Udalek Nafarroako Gobernuaren laguntzaz egin beharreko obrak.

III. Harrez gero esleitura edo esleitzeko bidean zeuden obrak, halarik ere langile gehiago jaso zitzaketeenak.

IV. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egin ahalko lituzkeen jarduketak.

Txosten honetan 21 obra biltzen ziren, aurreneko 3 ataletan, eta apirilaren bukaeran aurkeztu zitzaion Nafarroako Gobernuari. Honek, maiatzaren 6an, beste Erabaki bat hartu zuen, 11 obra prozedura negoziatuaren bitartez esleitzea xedatzen zuena.

Gobernuaren Erabakia erasten da. Bertan, lehenbiziko puntuan, aipatu obren zerrenda dator. Alabaina, lehen kontratazio-espeditenteak bideratu zirenean, ez prozedura negoziatuak, ez Ogasun Departamentuko Kontuhartzailtza Delegatuak, eta ez Idazkaritza Teknikoko txosten juridikoek ere eman zieten baimenik. Obrak ohiko prozeduren bidez kontratatatu ziren, hau da, enkantearen edo leihaketaren bidez. Horren ondorioz, Itoizko sabotajeak ukitutako enpresak esleipen-hartzaileak ez zirenez, aipatu Gobernuaren Erabakian aurreikusten ziren zuzeneko helburuak ezin izan ziren bete.

Aipatu erabakiaren bigarren puntuan, baimena ematen zaio Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari toki entitateekin hitzarmenak egiteko, Itoizko urtegiko obrek ukitu dituzten azpiegiturak birjartzeko beharraren ondorioz hainbat tokitan egin beharreko obrak kofinantzatzeko. Horren ondorioz bi hitzarmen izenpetu ziren.

– 1996ko uztailaren 31ko Artzibarko Udalarekin izenpetutako Hitzarmena, Nagoren Artzibarko Etxea eraikitzeko. Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak obren zuzendaritza teknikoa finantzatuko zuen 1.500.000 pezeta jotzen duen gehieneko kopurura arte.

– Nagoreko Kontzejuarekin izenpetutako Hitzarmena, hilerrria eraikitzeko, gehieneko 45.909.401 kopuruaren truk, eta frontoia eraikitzeko, 51.966.647 gehieneko kopuruaren truk; halaber, obren zuzendaritza teknikoa finantzatuko zuen 2.500.000 pezeta jotzen duen gehieneko kopurura arte. Bi obrak Nagoreko Kontzejuak kontratatatu zituen eta 1996ko urrian hasi ziren. Egun oso aurreratuta daude.

Ez dugu jakin Itoiztik zetorren langileren batek parte hartu duen haren zuzeneko edo zeharkako-garapenean, obrak kontratatzean ez baitzen inolako lege-baldintzarik ezarri, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeak eta leihakortasun-hatsapenak ezartzen dutenez beste.

2. Era berean, 7. artikulua ukitutako langileendako ezarri zituen laguntzen tramitazio eta ordainketari buruzko informazioa nahi da. Hurrengo informazioa eskatzen da horri buruz:

1) Zenbat langilek eskatu duen ezarritako laguntza.

2) Zenbat langilek jaso duen ezarritako laguntza.

3) Emandako laguntzen guztizko kopurua.

4) "Itoizko urtegiaren gelditzeak ukitutako enpresendako eta langileendako ordainketak" kontusailaren hasierako aurrekontu dotazioa.

5) Kontusail horretan 6/1996 Foru Legeak xedatua betetzeko eskura zeuden zenbatekoen guztizko kopurua, zertakoa aipatuz.

6) 1996ko abenduaren 31n aipatu aurrekontu lerroari aurreikusten zaion aurrekontu-disposizioa.

Ondoren datoz galdera hauei ematen zaien erantzuna.

Ukitutako langile eta enpresei eman zaizkien laguntzak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan

Departamentuak emaniko informazioaren arabera, honako hauek dira:

Itoizko urtegiko obrak gelditzeak ukitutako enpresa eta langileei eman zaizkien laguntzak, maiatzaren 13ko 6/1996 Foru Legeak onartuta.

Enpresak:	Zenbat
Itoiz, UTE (Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-6-14)	7.126.093

Construcciones Corellanas, SL (Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-6-14)	13.431.437
---	------------

Voladuras Antonio Rey, SL (Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-6-14)	142.679
---	---------

Guztira	20.700.209
---------	------------

Langileak:

Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-6-24)	12 langile	73.492
---	------------	--------

Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-7-25	15 langile	887.240
--	------------	---------

Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-8-14	9 langile	508.540
--	-----------	---------

Lan Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 96-9-30	13 langile	796.352
--	------------	---------

Industri, Merkataritza eta Lan Kontseilariaren Foru Agindua, 96-10-21	10 langile	558.312
---	------------	---------

Industri, Merkataritza eta Lan Kontseilariaren Foru Agindua, 96-11-21	8 langile	536.672
---	-----------	---------

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren Foru Agindua, 96-12-21	8 langile	447.948
--	-----------	---------

Guztira		4.472.988
---------	--	-----------

Maiatzaren 13ko 6/1996 Foru Legeak emaniko kreditua: 56 milioi

Gaur egun arte emanikoa, 25.173.197 pezeta. 1996ko abenduari dagokion parte ordaintzeke dago.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 23a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Erabaki hori Foru Parlamentari jaunandreen esku dago Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Eraikinak konpontzeko obrak kargaz arintzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eraikinak konpontzeko obrak kargaz arintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eraikinak konpontzeko obrak kargaz arintzeari buruz; planak bideratzerakoan epeak

laburtzeari buruz; alkateak planeamendu eta kudeaketa-tresnak onartzeko alkateak baimena emateari buruz (lurzorua liberalizateko neurriei buruzko 5/1996 Errege Dekretu Legeko 2.3, 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoak) eginiko galdera, dela eta, idatzizko erantzuna behar zuena, ondoren datorren erantzuna jakinarazi nahi du:

Galderan aipatzen diren gauza guztiei banan-banan erantzuten hasi baino lehen, beharrezkoa da argitzea 5/1996 Errege Dekretu Legeko 3. eta 4. artikulua ordezko-izaera dutela, eta horregatik Nafarroan aplikagarriak izango direla baldin eta gure legeriak ez badu beste ezer esaten. 2. artikulua, aldiz, oinarrizkoa da, eta horregatik zuzenez aplikatu beharrezkoa. Beraz, zure galderaren erantzunak honako hauek dira:

1. Egin al du Nafarroako Gobernuak gure komunitatean neurri hauek edukiko duten eraginari buruzko azterketa, kontrol edo jarraipenik? Zer ondorio aterata da gai bakoitzaren esparruan? Neu-

rri hauek aplikatzearen ondorioz eragin onuragarriak lortu al da? Eta eragin txarrik?

Nafarroako Gobernuak ez du galderak aipatzen duen bezalako inongo azterketarik, kontrolik edo jarraipenik egin. 5/1996 Errege Dekretu Legeko 2. artikuluko 3. atalaren kasuan, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeak, bere 13. artikuluan, 1, c) eta 1, d) ataletan ezartzen du antzeko erregimena, baina ez berdin berdina, Estatuko araua apur bat zabalagoa delako.

2. Zer eragin izaten ari dira neurri hauek, edo izan dezakete, Nafarroan, martxan dauden edo aurreikusten diren Alde Historikoen Berreskuratze politiketan?

Arau berriak, Nafarroako kasuan, ez du ia berrikuntzarik ekarri Alde Historikoen Berreskuratze politikari buruz, aurreko puntuan azalduenez, edo azaldu dena kontuan hartuz.

3. Zer eragin izaten ari da neurri hau, edo izan dezake, Nafarroan, martxan dauden edo aurreikusten diren Alde Historikoen Berreskuratze politiketan?

Galderak aipatzen dituen tramitazio-epeen laburtzeko neurriak (5/1996 EDLko 3. artikulua), ez dira aplikagarriak Nafarroan, erantzunaren hasieran esan denaren arabera, badelako onartzeko epe ezberdinak ezartzen dituen legeria. Beste egoera bat da aipatu Errege Dekretu Legeko 4. artikuluan ezartzen dena, zeren Nafarroako Tokin Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, bere 8. artikuluan, udalen administrazio eta gobernu-organoen eskumenak legeria orokorrak ezartzen duenaren menpe ekartzen baititu, eta kasu honetan, hortaz, Nafarroan aplikagarriak

dira. Bere eraginari dagokionez, hasieran hau positiboak izan beharko luke, baina eraginik ez dago epeak laburratzeari dagokionean, neurri hau ez delako aplikatzen, eta bai planak onartzeko alkateei eskumen berriak emateko neurriei dagokienean, nahiz eta, erantzunaren lehengo puntuaz denaz bezainbatean, ez den jakiten ahalbide hauei ematen ari zaien erabilera.

4.- Neurri honen eragina ikusirik, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gure Komunitatearentzako lege-aldaketa espezifikorik proposatzea, kontu hauek guztiak aintzat hartzen dituenik?

5.- Zer neurri ezarriko du Nafarroako Gobernuak neurri hauekin oso zabala den lurralde urbanizagarriaren betetze arazoizkoa bermatzeko, eta alde oso periferikoetan eta oinarritzko azpiegituretatik zein hiriguneetatik oso urrun daudenetan jarduketak berehala egin daitezten galarazteko?

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Lege aurreproiektu bat badago, eta une honetan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua baloratzen ari da. Bertan Estatuko arauak ezartzen dituen antzerako zaluagotzeko neurria sartzen dira. Estatuko araua lege bihurtzeko bideraketa bukatzen denean, aurreproiektuan sartuko dira azkenik ezartzen dituen berrikuntza positiboak, Nafarroako Gobernuak onartu baino lehen.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--